Komunikazio gaitasuna. Hizkuntzalaritza formala 1.3 GAIA

Amaia Serrano

amaia.serrano@ehu.eus

Hizkuntzalaritza pragmatikoa: komunikazio gaitasuna (I)

- Saussure-n eta Chomsky-ren ekarpenetatik abiatuta sortzen da hizkuntzaren alderdi praktikoari loturiko zientzia.
  - Gaitasun linguistikoaren erabilera egokia bermatzeko: gaitasun komunikatiboa
    - Pertsonen gizarteratze prozesuaren bidez ikasten da
    - Soziokulturalki baldintzatua da → arauak ditu.
    - Egoera komunikatiboaren arabera kontuan hartu beharreko alderdi guztiak barne hartzen ditu (hiztunen profilak, asmoak, tonua, kanala, genero diskurtsiboa, etab.)

Hizkuntzalaritza pragmatikoa: komunikazio gaitasuna (II)

"(...) al aprender a usar una lengua no sólo aprendemos a construir frases gramaticalmente correctas sino también a saber qué decir a quién, cuándo y cómo decirlo, y qué y cuándo callar"


(Lomas, 1999)

"Haunditzen zarenean
ikusiko duzu
isilik egoteak
zenbat balio duen"

(Lete, 1969)

Hizkuntzalaritza pragmatikoa: komunikazio gaitasuna (III)

Jakobsonen *giza komunikazioaren paradigma* (1963)



Basterretxea, 1997: 23

Hizkuntzalaritza pragmatikoa: komunikazio gaitasuna (IV)

Jakobsonen *giza komunikazioaren paradigma* (1963):
komunikazio prozesuko osagaiak

1.- *igorlea*: berba egiten duena, informazioa igorri gura duena eta horretan dihardduena, hiztuna.
2.- *mezua*: igorlea komunikatzen ari dena, berba.
3.- *hartzailea*: igorlearen komunikazioa jasotzen duena, entzulea.
4.- *kodea*: igorleak hartzaileari informazioa helarazteko erabiltzen duen komunikazio-sistema naturala, hizkuntza.
5.- *erreferentea*: informazioaren iturburuan dagoena, zertaz berba egiten den, errealitatea.
6.- *kanala*: informazioaren garraiabidea, komunikazioaren bide fisikoa.

Basterretxea, 1997: 24


Hizkuntzalaritza pragmatikoa: komunikazio gaitasuna (V)

- Ariketa: Jakobsonen eskema hori, baina, zaharkitua geratu da, zergatik? Zein arazo ikusten diozu komunikazioaren azalpen eskematiko horri?

Hizkuntzalaritza pragmatikoa: komunikazio gaitasuna (VII)

- Albert E. Scheflen-ek osatu zuen Jakobsonen eskema hori 70eko hamarkadan:

Scheflen-en *giza komunikazioa ulertzeko eskema globala* (1973)



Iturria: Basterretxea, 1997: 25


Hizkuntzalaritza pragmatikoa: komunikazio gaitasuna (VI)

- Chomskyri kritika: hizkuntza behar bezala erabiltzeko gaitasun linguistikoez gain alderdi etnografiko eta soziokulturalak ere kontuan hartu beharra (Dell Hathaway Hymes)
  - Berak sortu zuen *komunikazio gaitasuna* kontzeptua

"Hiztun batek behar duen gaitasuna testuinguru desberdinetan aritzeko "
(Hymes, 1972)

Hizkuntzalaritza pragmatikoa: komunikazio gaitasuna (VIII)

- Canale eta Swain-ek 80ko hamarkadan Hymesen gaitasun komunikatiboaren kontzeptuan sakonduz lau azpigaitasun sailkatu:



Hizkuntzalaritza pragmatikoa: komunikazio gaitasuna (IX)

GAITASUN LINGUISTIKOA

— Perpaus bakun nahiz konposatuak erabiltzea.
— Ordena sintaktiko egokia. Galderak ere baliatzea.
— Hiztegi zehatza erabiltzea eta ezagunak ez diren terminoak azaltzea.
— Ahoskera garbia eta lasaia izatea. Erritmo eta tonu egokiak baliatzea.

Hizkuntzalaritza pragmatikoa: komunikazio gaitasuna (X)

GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA

— Entzuleen ezagutzetara egokitzea.
— Entzuleen interes eta beharrak kontuan hartzea.
— Ahozko erregistro formalaren ezaugarriak baliatzea.
— Ikasgelako erregelak ezagutu eta erabiltzea (hizlariak hitz egiten du, hizlariak hitza ematen du, hitza eskua altxatuta eskatzen da...).
— Hasieran agurtzeko eta bukatzeko forma egokiak erabiltzea.

Hizkuntzalaritza pragmatikoa: komunikazio gaitasuna (XI)

GAITASUN DISKURTSIBOA

— Eskema edo gidoi bat egitea (ideiak antolatzeko).
— Azalpena ohiko egituraren arabera antolatzea: sarrera (korapiloa azaltzea), garapena (askatze fasea) eta sintesia (ondorio fasea).
— Testu antolatzaileak erabiltzea, atal desberdinak markatzeko eta ideien arteko loturak adierazteko.
— Adibideak, konparazioak, metaforak, metonimiak eta bestelako baliabide erretorikoak erabiltzea, azaldu beharrekoaren argigarri.

Hizkuntzalaritza pragmatikoa: komunikazio gaitasuna (XII)

GAITASUN ESTRATEGIKOA

— Ikus-entzunezkoen erabilpena (irudiak, transparentziak, power-point...).
— Gidoiak edo eskemak paperean banatzea.
— Ahotsaren intentsitatea espaziora egokitzea.
— Intonazio enfatikoaren bidez kontzeptu garrantzitsuak markatzea.
— Entzuleei (egokiro) begiratzea.
— Atalen artean eten txikiak egitea, diskurtsoari oxigenoa emanez.

Ariketa

- Irakurri ondorengo testuak eta identifikatu zein azpigaitasun urratzen duen

Mezuaren testuingurua kontuan hartuz, esazu zein azpigaitasun urratzen den ondorengo komunikazio jardunetan:

1. testua (ETB1eko Gaur Egun albistegian emandako berria)

Aupa! Kataluniako Parlamentuak erabaki du estatu independentea izateko erreferenduma egingo duela, bai ala bai. Alde horretatik, bost axola zaie Madrilgo Gobernuaren iritzia, ez diote kasu zipitzik egin behar eta.

2. testua (Argia astekariko erreportaje baten zatia)

Gero eta gehiago dira kalamua legeztatzearen aldeko ahotsak, nahiz eta kontrako iritziak ere badauden. Norvegian egindako ikerketa baten arabera, kalamuaren kontsumitzaileek ondo ikusiko zuten legeztatzeko debate nazional bat planteatzea.

3. testua (Harluxet hiztegi entziklopedikoan dagoen hitz baten sarrera)

Katagorrio. iz. eta izond. ZOOL. Karraskarien ordenako zenbait ugaztunei esaten ditek. Tamaina txiki edo ertainekoak dituk eta oso habitat desberdinetan bizi dituk. Bere baitan marmotak, katagorriak eta larre-txakurrak hartzen dituen Sciuridae familia osatzen ditek.

4. testua (Euskadi Irratian entzundako eguraldi-iragarpena)

Bero zakarra espero dugu gaurkoan ere, arratsaldean fronte hotz bat etorriko delako. Tenperaturei dagokienez, hobe duzue arropa arina janztea, ez baduzue bero-galdaran egon nahi.

5. testua (Karlos Argiñanoren errezeta bat)

OSAGAIAK: 200 g. phaseolus vulgaris aleak, 200 g. gazta berri, eskutada bat nasturtium officinale, oliboilo birfindua, sagardo-ozpina, gatza, lactuca sativa bat, raphanus sorta bat. PRESTAKETA: Nasturtium officinaleak ongi garbitu ur bizitan. Zurtoinak lodiak badira kendu. Phaseolus vulgarisak oso finak badira, gordinik erabili. Potoloak badira, olio pixka batean utzi minutu gutxi batzutan. Olioa eta ozpina erantsi bi 24 barazkiei eta gatza eman. Nahastu eta zerretan ebakitako gazta erantsi. Lactuca sativa hosto eta raphanusekin apaindu.

6. testua (Berria egunkaritik hartutako iragarkia)

VUELING enpresak hegazkin bidaiak merke-merke egiteko aukera eskaintzen du eta gainera euskara kontuan hartu du bere web gunea egiterakoan eta horrenbestez web guneak eskaintzen dituen zerbitzuak euskaraz jarraitzeko aukera izango du hegaldi merkeak bilatzen dituen bidaiariak.

Ariketaren iturria: Zelaieta (2015: 23-24)